

Liburutegia

Pilar Iparragirre



Eragon
[Christopher Paolini](#)

ELKAR
576 orrialde
23,95 euro

Magia eta botere ezkutuko mundua

Hamalau urtetik aurrerako irakurleei zuzendua dago *Eragon* idazlana eta 2002. urtearen hasieran eman zen ezagutzera Amerikako Estatu Batuetan. Orain euskaraz ere irakur daiteke, Fernando Morillok egindako itzulpenari esker. Magia eta botere ezkutuz betetako mundu ezezaguna aurkezten duen liburua da *Eragon*, Christopher Paoliniren *Oinordekotza* izeneko trilogiaren hasiera. Liburuan Lurra gaitz handi batetik libratzea lortzen duen hamabost urteko mutiko baten ibilerak azaltzen dira. Basoan harribitxi bat aurkitu delakoan dago, baina harribitxia arrautza berezi bat da, eta berehala

la sortuko du mutikoaren lagun mina bilakatuko den Saphira dragoi emea. *Eragonen*, makina bat arrisku gainditu beharko dituzte biek ala biek bizirik ateratzeko. *y*

Mutiko baten haserrearen zioak

Zortzi urtetik gorako irakurleei dago zuzendua Antton Kazabonek idatzi eta Mattin marrazkilariak apaindutako *Mattinen haserre*. Protagonista, goizetik gauera haserre bizian dagoen mutiko bat da, Mattin. Bere amorrua besteei ezkututzen saiatzen da, baina begibistakoa da barnean daraman haserre bizia. Amak ohetik altxatzeko agintzen dionean, ikastolan, ikaskideekin eta asteburuko futbol partidura entrenatzen doazenekin du lotura. Zer gertatzen ote zaio Mattini? Ama izango da mutikoaren ezinegona agerian jarriko duena. Hark ere ez daki zergatik dagoen hain poztgabe bere seme nagusia, baina haren suminaren zergatiak ezagutu nahi dituenek, Mattinek barruan daraman sua hitzetan azaltzen hasiko zaio umeari, ea behingoz lehertzen den eta konponbidea bilatzen duten. *y*



Mattinen haserre
[Antton Kazabon](#)
[Mattin](#)

AIZKORRI
46 orrialde
6,75 euro



EITB 1982-2007.
Hegaldi-kronika
[Jose Mari Otermin](#),
[Jose Ramon Diez Unzueta](#)


EITB
260 orrialde / 18 euro

EITB hogeita bost urtez zutik eduki duten gizon-emakumeak

Komunikazioaren merkatu zorrotzean eta espezializatuan irriatiak eta telebistak sortzeko lanari ausardiaz ekin zioten ehunka profesionalen gorabeherak kontatzea ditu, batik bat, Jose Mari Oterminen eta Jose Ramon Diez Unzueta EITBren 25. urteurrenari begira osatu duten *EITB 1982-2007. Hegaldi-kronika* liburuak. Euskal irratia eta telebistaren hogeita bost urte hauetako unerik esanguratsuenak aurkezteaz gain, denbora tarte horretan maiz isiltasunean eta anonimotasunean EITBren alde aritu diren gizon-emakumeak izan dituzte abiapuntu Oterminen eta Diez Unzueta liburuak osatzeko orduan. Hori dela-eta, narrazioak, kazetaritza eta literatura uztartzen ahalegindu den liburua da haxe. *y*

Euskal hiritarren nortasunez

Eusko Ikaskuntzak plazaratu berri duen *Euskal nortasuna eta kultura XXI. mendearen hasieran* izenburuko lanak Euskal Herriko gizartearen dauden kultura eta nortasun adierak ezagutu nahirik, egindako ikerketaren emaitzak eskaintzen ditu. Euskal herritarrek nolako nortasun sentimendua duten ikertu dute teknika kuantitatibo eta kualitatiboak erabiliz, besteak beste eztabaida taldeak eta banaka egindako inkestak. Euskal lurraldeei buruz nolako pertzepzioak dituzten, bertako kulturaren barruan euskarari ematen dioten lekua, euskal kulturaren egoera eta etorkizuna sumatzerakoan zer ikusten duten eta antzeko beste xehetasun interesgarri asko bildu dituzte. Helburua, Euskal Herri osoko biztanleek gai hauen gainean dituzten pertzepzio ugarietara hurbiltzea izan da, berauek ulertzen hasteko bide bat proposatuz. *y*



Euskal nortasuna eta kultura XXI. mendearen hasieran

[Batzuen artean](#)
EUSKO IKASKUNTZA
160 or. + CDa



Munduko historiari ederrena

Batzuen artean

GAIAK

172 orrialde

18 euro

Gizakumeon jatorriaren sekretuak

Nondik gatoz? Zer gara? Nora goaz? Askok gizaldiz gizaldi bere buruari egindako galderak ditugu. Eta horixe erantzun gaurkotua ematera dator Gaiak argitaletxeak kaleratutako *Munduko historiari ederrena* (Gure jatorriaren sekretuak). Dominique Simonnet-ek tximinotatik eta bakterioetatik bai, baina astro eta galaxietatik ere bagatozela argituz osatutako hitzaurrearekin hasten da liburua. Ondoren Simonnetek berak Hubert Reeves astrofisikariari, Pasteur Institututuko zuzendari-ohi eta Zientzia eta Industriaren Hiriko zuzendari Joël de Rosnay-ri eta Afrikan hiru milioi eta

erdi urteko Lucy australopitekoa aurkitu zuen Yves Coppens Collège-ri egindako elkarrizketak agertzen dira. **y**

Joan Maria Uriarte bakegintzak behar duen adiskidetzear

Gure gizartearen gaurko eginbide nagusiak baketzea, normalizatzea eta adiskidetzea direla-eta, Justizia eta Bakea Elizbarrutiko Idazkaritza Sozialak euskaraz eta gaztelaniaz plazaratu du *Adiskidetzea*, Joan Maria Uriartek XIV. Rikardo Alberdi Aste Sozialean aurkeztutako txostena. Pertsona eta taldeek elkarrenganako errespetuan oinarritutako bizikidetzea berreskuratzea da egilearentzat adiskidetzea. Eginbide hori kristauek ondo ulertzeko, eta Elizak jokatu beharreko papera azaltzeko osatu du liburua Uriartek. **y**

Adiskidetzea

Joan Maria Uriarte

IDATZ

112 orrialde / 3 euro



Koldo biguri

«Herri xehea osatzen dutenen mosaiko oso bat erabiltzen du»

Zer aurkituko du irakurleak euskaratu duzun Pratoliniren nobelan?

Bistaraten zaizkigun gertakariak XX. mendeko bigarren hamarkadaren hasieran daude girotuta, Italian faxisten eta antifaxisten arteko liskarrik gogorrenak egon ziren urteetan, Mussoliniren diktadura baino lehentxeago batez ere, baina ondoko urtean ere bai. Giro politiko horrek eragin nabaria izango du Via del Corno kaleko biztanle guztien bizitzan. Baina tesi politiko bat azaltzetik aparte, herri xehearen kezka eta ametsak, amodioak eta gorrotoak kontatzen ditu Pratolinik, herri xehea osatzen duten pertsona apalen mosaiko oso bat erabiliz. Zein da *Maitale koitaduen kronikak* liburuan Vasco Pratolinik erakutsitako dohainik handiena?

Trebezia nabaria dauka gizarte osoarenak diren arazo sozial eta politikoak pertsonaien barne-begiradaren bitartez eszenaratzeko, Via de Cornoko jendearen nahigabe eta pozak lirikotasun errealista batez kontatuz. Nobela 1946an idatzi zuen, Italian komunismoa nagusituko zela uste zuen garaian; hartara, neorrealismoaren barruan koka daitekeen kronika honetan, ikusiko dugu nola herri klasea ari den apurka-apurka bere buruaren kontzientzia hartzen, klase kontzientzia izatera iritsi gabe ordea. Idazle gehienak burgesiarena bezala, Pratolinik jende apalaren jarrera morala islatu zuen. Arrazoa?

Idazlearen esperientzia eta oroimena daude agertzen duen unibertso horren jatorrian. Bera ere herri xehe horretako partaide zen, eta horrexegatik izan zuen joera herri hori bere kontagintzaren protagonista nagusitzat hartzeko.



RAUL BOGAIO

Vasco Pratoliniren maisulana euskaraz

Koldo Bigurik euskaratu du Vasco Pratolini (Florentzia 1913-Erroma 1991) idazle italia-

rraren *Maitale koitaduen kronikak*. Lehen Mundu Gerra bukatu berria, Italian faxismoaren gorakada nabarmentzen den uneen, Florentziako erdigunean kokatuta dagoen espaloi gabeko kale estu eta ilun batean bizi den jende xehearen bizipozak eta minak azaltzen ditu. Bada faxistarik kalekoen artean, eta bada faxismoaren aurka borrokatzen saiatzen den ezkertiarrik ere. Nolanahi ere, gehientsuenen kezka nagusia ez da politika bereziki, bere burua eta maite dituenak aurrera atera ahal izateko bizimodua nola prestatu baizik. Izan ere, ikazkinak, ferratzaileak, barazki eta fruta saltzaileak edo peoi lanean dihardutenak Via del Cornon falta ez diren arren, langabeziak estututa lapurreta txikiak egiten dabilzanak eta horrega-



Maitale koitaduen kronikak

Vasco Pratolini

ALBERDANIA, ELKAR

500 orrialde
18,80 euro

tik espetxea maiz bisitatu beharrean direnak ere bizi dira kalean. Via del Cornok ez du inoiz atsedetik hartzen. Beroagatik leihoak beti daude irekita, eta haixetatik edonork jakin dezake uneoro zer gertatzen den. Batez ere horretarako orduak eta interesa soberan dauzkanak, dena kontrolatzen duen andre zaharrak, alegia. *Maitale koitaduen kronikak* Vasco Pratoliniren maisulana da. **n**

egileari galdetza